

BILBOKO KOMERTZIOAN
EUSKARA SUSTATU ETA
NORMALIZATZEKO
PLANA
- 2007 -



Biribilko
Bilbo Komertziala

Biribilko: Planaren nortasuna

- **Zergatik Biribilko?** Diagnostiko estrategikoa

Oro har, Bilboko merkataritza sektorearen ikuspegitik, hizkuntzaren normalkuntzak eta hain zuzen ere, euskararen sustapenak, ez duelako loturarik jarduera komertzialaren dinamika ekonomikoarekin, alegia, hizkuntzaren normalkuntzarekin lotutako programa eta ekintzek establezimenduen errentagarritasun ekonomikoa areagotzeko eraginik ez dutela pertzibitzen da.

- **Zertarako?** Misio estrategikoa

Euskara Bilboko Merkataritza sektorearentzat komunikazio hizkuntza gero eta erosoagoa eta lehiakorragoa izan dadin laguntzeko, sektorearen nahiz establezimenduen zerbitzu kalitatea hobetzeko hizkuntza baliagarri bihurtuz, etorkizun komertziala planifikatzeko aldagai komertzial gisa kontsideratuz eta hiriaren garapen iraunkorrerako bitarteko izanez.


- **Zer da Biribilko?** Bilboko merkataritzan hizkuntza normalizazioa sustatzeko proiektua da. Hona hemen bere identitate ezaugarriak:

- Berritzailea da.
- Bilbo da, hiria da.
- Merkataritza da.
- Errentagarritasun plus bat da.
- Euskara da.
- Komunikazioa da.
- Integratzailea da: euskara eta merkataritza
- Etorkizuna da.
- Bilbon, hizkuntza normalizaziorako eta merkatarientzako proiektu marko berri bat da.

- **Nola gauzatzen da Biribilko?** Bere ardatz estrategikoak

- **1. ARDATZA:** Merkataritza sisteman euskara komunikazio hizkuntza errentagarri, eraginkor eta berritzailearen irudia integratu.
- **2. ARDATZA:** Sektoreko eskaintza eta eskariaren arteko komunikazioa euskaraz izan dadin sustatzeko, ekintzak planifikatu eta garatu.
- **3. ARDATZA:** Merkataritzaren eta hizkuntza normalizazio prozesuaren arteko harreman positiboa sustatuko duten zerbitzu eta ekintzen inguruko informazioa eta komunikazioa zabaltu

- Norekin gauzatuko da Biribilko? Proiektuan inplikaturiko eragile desberdinak



- Noiz gauzatuko da Biribilko?

Biribilko proiektua, hasiera batean, lau urtera begirako proiektua da: 2007-2011.

Diagnostiko estrategikoan eta aplikatuko beharreko neurriak definitzeko erabiliko irizpide teoriko-metodologikoetan oinarrituta, urtero Kudeaketa Plan diseinatu, garatu eta ebaluatuko da.